

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

LURRALDE OREKAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 113/2020 Erabakia, otsailaren 25ekoa. Onespena ematea Arabako Lurralde Historikoan estatu gaikuntza duten toki administrazioko funtzionarioentzat gordetako lanpostu hutsak betetzeko 2019ko lehiaketa bateratuaren ebazpenari

Diputatuen Kontseiluaren azaroaren 6ko 721/2019 Erabakiaren bidez (ALHAO, 134. zk., azaroaren 20koa), lekualdatze lehiaketa bateraturako deia egin zen, behin betiko betetzeko Arabako Lurralde Historikoan hutsik dauden eta gaikuntza nazionala duten toki administrazioko funtzionarioentzat gorderik dauden lanpostuak. Lehiaketa horretako izapideak beterik, hartarako eraturiko epaimahai bakarra bildu da, zeinak dagokion aktan agertzen diren behin betiko izendapenak eta hutsik geratuko diren lanpostuak proposatu baititu Arabako Lurralde Historikoari dagokionez.

Horiek horrela, bat etorritoki araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen bigarren xedapen gehigarriaren 7. apartatuan ezarritakoarekin eta aipaturiko gaikuntza duten toki administrazioko funtzionarioentzat erreserbatutako lanpostuen hornikuntzari buruzko uztailaren 29ko 1732/1994 Errege Dekretuaren 22. artikuluekin loturik 7/1985 Legearen bosgarren xedapen gehigarriak araututakoarekin, Arabako Foru Aldundiak esleituta dauzkan eskumenez baliatuz eta deialdiaren oinarrietan ezarritakoa betez, Lurralde Orekaren Saileko foru diputatuaren proposamenez eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egin duen bilkuran gaia aztertu ondoren,

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Gaikuntza nazionaleko toki administrazioko funtzionario hauek ondoren aipatzen diren lanpostuetarako behin betiko izendatzea:

3. mailako idazkaritzak

Elciegoko Udala

Celia Martínez Becerril

Bigarrena. Hutsik deklaratzeko estatu gaikuntza duten toki administrazioko funtzionarioentzat erreserbatutako lanpostu hauek:

1. mailako kontuhartzaitza

Laudioko Udala.

2. mailako kontuhartzaitza

Amurrioko Udala.

Diruzaintza

Vitoria-Gasteizko Udala.

1. mailako idazkaritzak

Vitoria-Gasteizko Udala (Udalbatza)

Vitoria-Gasteizko Udala (Tokiko Gobernu batzarraren laguntza organoa)

3. mailako idazkaritzak

Aramaioko Udala

Arraia-Maeztuko Udala

Urizarreko Udala

Gaubeako Udala

Zambranako Udala

Lagran-Harana taldea

Leza-Navaridas taldea

Moreda Araba-lekora taldea

Zalduondo-Añana taldea

Aiarako Kuadrilla

Hirugarrena. Izendatutako funtzionarioek utzi egin beharko dute gaur egun duten destinoa, erabaki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo hiru egun baliodunen barruan. Era berean, funtzionario horiek hilabete izango dute izendatu zaien lanpostuaz jabetzeko, gaur egun daukaten destinoa utzi eta hurrengo egunetik aurrera kontaktzen hasita, uztailaren 29ko 1732/1994 Errege Dekretuaren 23.1 artikulua ezarritakoarekin bat etorritik.

Laugarrena. Udalek lanpostuaz jabetzeko eginbidearen jakinarazpena bidali beharko diete Arabako Foru Aldundiko Lurralde Orekaren Zuzendaritzari eta Eusko Jaurlaritzako Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzari. Horretarako, hiru egun baliodun izango dituzte, eginbideak egiten diren egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko otsailaren 25a

*Diputatu nagusia***RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE***Lurralde Orekaren Saileko foru diputatua***IRMA BASTERRA UGARRIZA***Lurralde Orekaren zuzendaria***IÑAKI GUILLERNA SAENZ**